

noaua



"BELARRIPREST ETA AHOBIZI, ZUEN TXANDA DA. EMAN IZENA EUSKARALDIA.EUS WEB ORRIALDEAN"

Maiatzaren 15etik 25era ospatuko da Euskaraldia eta dagoeneko zabalik da izena emateko epea / 18-19 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Osinaldeko ezbeharrean elektrokutatuko gaztea zendu da / 03




NOAUA

Zuhaitz Gurrutxaga eta Ander Izagirre Sutegin izango dira ostiral honetan / 10



NOAUA

Udarregiko LH6ko ikasleek elkartasun azoka antolatu dute, DYArean alde / 11



NOAUA

Laburbirako zortzi filmak ikusgai izango dira igande honetan Sutegin / 16

ANDATZA TABERNA

Neguko ordutegi berria!

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA RAZIOAK
OGITARTEKOAK

Ostegunetan
Pintxo pote!

8:00-20:00 Astelehenerik - Ostegunera **BAZKARIAK**
8:00-23:00 Ostiraletik - Larunbatera **BAZKARIAK / AFARIAK**
8:00-21:00 Igandeak **BAZKARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

USURBIL
OPTIKA

4 Urteko Garantia

Interes Gabeko Finantzaketa
*Banketxeak onartzean

Entzumen azterketa
DOAN

Entzun telebista eta mugikorra zure audifonoetan

PILARIK GABEKO
TEKNOLOGIARIK AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

Albania

IRTEERA 2025eko maiatza

NOAOA
BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eu • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO, HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

"Nahi ez genuen albistea iritsi da"

Martxoaren 8an gertatu zen ezbeharra. Adin txikiko bi gazte Osinaldeko Erribera kalean dagoen goi-tentsioko dorrera igo ziren. Deskarga elektrikoa jaso eta gero, osasun egoera larrian zen gazteetako bat. Barakaldoko Gurutzeta ospitalean astebete eman eta gero, martxoaren 15ean zendu zen. 11 urte zituen.

"Egun tristea da gaurkoa Usurbilgo herriarentzat: nahi ez genuen albistea iritsi da, eta kolpe gogorra izan da, desgrazia izugarria. Gure doluminak azaldu nahi dizkiogu bere familiari eta lagunei".

Adierazpen hauek Agurtzane Solaberrieta alkateak egin zituen, gaztearen heriotzaren berri izan eta gutxira. "Gertatu zenean bezalaxe, orain ere ezinbestekotzat jotzen dugu berriro halako ezbeharrik ez gertatzeko neurriak hartzea", hori ere adierazi zuen agiri berean. Ertzaintzak ikertzen segitzen du eta Udala hartu-eman etengabea da, "eta elkarlanerako prest".

Martxoaren 12an, Osinaldeko dorre elektrikoa hesitu egin zuten, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak enpresa jabeari propio agindu eta gero.



Martxoaren 12tik hesituta dago Osinaldeko dorre elektrikoa.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Martxoaren 20tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Martxoaren 27an osteguna, garbigune mugikorra Kalezarrera eramango dute.

Hurrengo ibilaldi osasungarria, Aginagan

"Goazen kalera, Usurbil!" ekimenaren hurrengo hitzordua, hilaren 25ean izango da, Aginagan. Bertako frontoitik abiatuko da herritar orok parte hartu ahalko duen paseoa 10:30ean. Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek sukaldaturiko hamaiketakoak dastatuko dute.

1952an jaiotako bazkaria maiatzaren 3an egingo da

Maiatzaren 3an Artzabal jaietxean batuko direla jakinarazi dute. Dena den, aurrez eman behar da izena. Apirilaren 25era bitarteko epealdia finkatu dute horretarako. Otorduan parte hartu nahi duenak telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 620 516 715 (Javier).

Jokin Eizagirren erakusketa ikusteko azken egunak

Jokin Eizagirrek jaietako maskota egiten du eta gabonetan, apaingarriekin edertzen ditu herri erdigunea eta auzoak. Margolaria ere bada eta bere hainbat koadro hautatu ditu eta Guria tabernan ipini ditu ikusgai. Erakusketa martxoaren 30era arte egongo da zabalik.



Argitaratzailea:
Noaia Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaia.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegoa,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaia.eus
Banataleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Konbertsio terapiak

Duela aste batzuk homosexual baten testigantza irakurri nuen; agidanez, konbertsio terapia bat jarraitu zuen. Honelazioen: "Ez gara gaixoak, ez gara bekataria, ez ditugu familia suntsitu nahi. Ez gara ez alferrak eta ez gaizkileak. Sei hilabetez komentu batean sartu ninduten 20 urteko mutil batekin maiteminduta egoteagatik. Manipulatua izan nintzen. Terapia hori tortura bat izan zen, eta jasanezinezko sufrimendu horretan ez dago laguntzarik, ez askatasunik, tratu txar ugari baizik".

Sexu bihurtaketa edo konbertsio terapia gai honek sekulako iskanbila eragin du eta hautsaldi galanta harrotu bai Elizan eta baita gizartean ere. Terapia horiek homosexualen sexu orientazioa aldatzera bideratutako metodo sasi zientifiko batzuk dira, ea heterosexualak bihurtzen diren, alegia. Eta historian zehar frogatu denez, ez dute ez sendatzen, ezta ezertxo erreparatzen ere, bizitzak hondatu besterik ez. Karla Delgado, lehen senatari transexualaren esanetan, terapia mundu horretako gazteen suizidio saioak asko ugaritu dira.

Gai honen aurrean, Eliza katolikoan bi jarrera nabarmendu dira. Metodo hauen alde daudenak zazpi Elizbarruti gutxienez badira. Hauentzat, homo-



Luis Aranalderen ustez, "terapia hauek ondorio penalak izan behar dituzte".

sexualitatea bekatu denez, ahalegindu behar da pertsona horiek heterosexual bihurtzen. Beren propagandaren eta publizitatearen arabera, konbertsio hori errealtate bihurtzeko, kastitatean bizitzea eta egunero praktika erlijiosoak egitea da, besteak beste. Horretaz gain, biblia irakurtzea, egunero errezatzea, mezetara joatea eta konfesatzea aholkatzen dute. Horrela, "zure genero bereko pertsonengan bilatzen duzun maitasuna Jainkoak ematen dizun maitasunak ordezkatzeko". Elizbarruti hauetatik agertu dutenez, terapiak ziurtatzen du praktika horiek

"ERROMAK TRATAMENDU HAUEK GAITZETSI ZITUEN DUELA URTE BATZUK"

modu jarraituan eginez gero, homosexualitatea "konpon" daitekeela. Hori frogatzeko, ustezko homosexualen adibideak ematen dituzte, homosexualak izateari utzi omen ziotenak alegia. Jarrera honi buruz honela zioen David Armenteros LGBTBiko lehendakari ordeak: "Elizaren sektore batek katoliko homosexualak berriro armairuan sartu nahi dituzte".

Beste jarrera, Bartzelonako Omella eta Madrilgo Cobo Artzapezpikuena da. Hauen testigantza biziki poztu nau "Egoitza Santuak edo Erromak tratamendu hauek gaitzetsi zituen duela urte batzuk", diote, eta "ez da denbora asko, Frantzisko Aita Santuak prelatu edo apaiz nagusi talde batekin egindako bilera batean praktika horiekiko kezka berretsi zuela".

Bestetik, gizarte zibilak gogor gaitzetsi ditu metodo lotsagarri eta kaltegarri hauek. Ana Redondo, Berdintasunaren ministroak, bere ministerioan errefusa edo arbuia agertu du. Eta konkretuki, oso gogor gutxietsi duena zera izan da: zenbait parrokiatan Elizak pertsona homosexuali jaunartzea ukatzea. "Ekimen hau alde gutzietatik diskriminatzailea da", dio. Goian aipaturiko David Armenterosen ustez, konbertsio terapia hauek ondorio penalak izan behar dituzte.


Helduentzako tertulia filosofikoa

Martxoaren 21ean izango da, 18:30-20:00 artean Potxoenean. Bideratzaileak eginiko galdera batetik abiatuko da hausnartzea xede nagusi izango duen gune askeko dinamika, azken hiru urteotan egin izan duten moduan. 15 lagunentzako tokia egongo da Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteek antolatutako hitzordu horretan. Izena doan eman ahalko da aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

"Usurbil herri zaintzailea" ekitaldia

Hainbat gai ahotan hartuko dituen aurkezpen ekitaldia antolatu du Usurbilgo Udalak alor honetan lanean ari diren eragile gehiagorekin lankidetzan martxoaren 29rako, 11:00-13:30 artean, Sutegiko auditorioan. Hitzordurako gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dira usurbilkultura.eus plataforman. Gaiok hartuko dira ahotan:

- 1-"Usurbil, herri zaintzailea" dokumentalaren aurkezpena.
- 2-Arreta ereduaren eraldaketa: bizi planen aurkezpena.
- 3-Usurbilgo zaintza ekosistemaren egituraren aurkezpena.
- 4-Komunitatearen ekarpena, martxan dauden proiektuen aurkezpena: Txirikorda, Hurbilduz auzo-zaintza proiektua, HarEman, merkataritza zaintzailea, gazteak eta buru osasunaren lanketa.
- 5-Amaieran, mokadutxo bat.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Argazkian, Buruntzaldeko transmaribollo sareko kideetako batzuk.

"Indarrak batuta, eragiteko gaitasuna biderkatu egiten da"

BURUNTZALDEKO TRANSMARIBIBOLLOAK SAREA

Lumakadaka Eguna antolatu du Buruntzaldeko transmaribollo sareak. Goizean hasita eta ordu txikietara bitarte, askotariko hitzorduek izango dira martxoaren 29an, Andoainean.

ALBA CABRERA AIURRI ASTEKARIA Buruntzaldeko herrietako kideek osatzen duzue taldea, ezta?

Bai, hala da, gure eskualdeko herri guztietako kideak daude taldean. Egia da, batez ere, Hernaniko zein Andoaingo jendea dagoela, gehienbat; beharbada, bi herrien tamainak zerikusia izan dezake horretan. Dena dela, gainerako herrietako kideak ere badira. Garrantsutsua da hori, Buruntzaldea osoko ikuspegia kontuan hartzeko, toki guztietako errealitateen berri edukitzeko aukera ematen baitigu horrek.

Orain urtebete batu zineten, lehen aldiz. Zerk bultzatuta?

Joan den urteko otsailaren hasieran ekin genion saretzea-

ri. Lasarte-Orian izan zen lehenengo bilera, bertako transmaribollo taldeak dinamizatuta. Erantzun ona jaso zuen deialdiak, ia herri guztietako kideak gerturatu baikinena bertara, hogeitabat edo. Hasteko, herri bakoitzeko aktibazio-maileta eta baliabideak partekatuta genituen, eta, ondoren, hausnarketa sakonagoetara jo genuen: "Zergatik eta zertarako behar dugu Buruntzaldeko transmaribollo sarea? Zer egin nahiko genuke?".

Gauzak horrela, urtebeteko bidea osatu berri du taldeak eta askotariko ekintzak egin ditugu, egun seinalatuetan. Espazio ez formalei ere garrantzia eman diegu, gure arteko harremanak estutze aldera.

Eta, hori horrela, zergatik eta zertarako behar du Buruntzaldeko transmaribollo sarea?

Nor bere herritik, errealitateetik etorri arren, badira partekatzen genituen zenbait kezka: komunitate baten falta sentitzen genuen, eta horrek bakardade sentazioa eragiten zuen. Auziari dagokionez, antolatu gabeko pertsonak eta

"SEXU-GENERO DISIDENTEOK SORTUTAKO JAIALDIA DELA AZPIMARRATZEN DUGU"

herriak zeudela identifikatu genuen. Bestalde, inportantea iruditzen zitzaigun mugimendua deszentralizatzea, alegia, guretzat pisua du tokikotasunak, sexu-genero disidententeon aldarrikapenak hiriburutik harago ere entzun daitezzen. Horregatik, erreferenteak sortzeko premia ikusi genuen, elkar ezagutzeko zein babesteko. Finean, komunitatea sortu nahi dugu, eskualde-sena egonkortzeko. Horrela, indarrak batuta, eragiteko gaitasuna biderkatu egiten da, proposamen eta ideiak partekatuz, eskubideak aldarrikatzen jarraituz, erakundeak interpelatuz eta abar (...).

Urtebeteko bidea egin berritan, egun osoko egitaraua prestatu duzue, Andoaingo gaztetxean, martxoaren 29rako. Besteak beste, ikusgarritasuna lortzea al duzue xede?

Hein batean, bai. Aste hauetan, adibidez, egunaren harira, pankartak eta kartelak ipini ditugu Buruntzaldea osoan, hemen gaudela, antolatuta gaudela esateko. Halere, martxoaren 29an eskualdetik harago ere jo nahi dugu, inguruertako kideak gonbidatu eta esperientziak partekatzeko. Aurretik aipatu ditugun beharrak asetzeko aitzakia ere bada egitaraua. Urte osoko lanketaren emaitza da eguna eta Andoaingo kaleak aldarriz eta lumaz betetzera goaz!

Izen-ematea itxi den arren, izan-go al da aukerarik egunean bertan hitzorduren batera gerturatzeko?

Bai, goizeko zein arratsaldeko ekintzetara etortzeko aukera dago, baita gauekoetara ere, sarrera ordainduta. Sexu-genero disidenteok sortutako jaialdia dela azpimarratzen dugu, aurretik aipatutako helburuekin, eta ateak irekita izango ditugu bertara gerturatu nahi duen ororentzat. Hori bai, ez baldin badakizu egoten, EZ etorri!



Bihurri ludoteka San Inazio kalean da eta zuzendaritza berria du.

"Bihurri ludotekak espazio atsegina bat eskaintzen die gurasoei"

BIHURRI LUDOTEKA ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendaritza aldaketa egin berri dute Bihurri ludotekan eta indartsu hasi dituzte urte berriko antolaketa lanak. Hainbat jarduera aurreikusi dituzte datozen hilabeteetarako.

Herritar askok jakingo dute Bihurri ludoteka non dagoen, baina inork gutxi funtzionamendua. Zuzendaritza berritu duzue.

Autogestionatua da ludoteka, eta udaletxeak utzitako lokala da. Bazkideak bidez funtzionatzen dugu eta 0-8 urte bitarteko umei zuzendutakoa da. Bazkideak eskubideak ematen ditu, baina baita betebeharrak ere, eta horietako bat urte amaierako zuzendaritza aldaketa izaten da. Urtero aldatzen da zuzendaritza taldea, eta betiere, hiru bazkidek osatzen dute. Minimoa hiru pertsona izaten dira, erregistroak hala eskatzen digulako, eta zozketa bidez aukeratzen dugu normalean. Bolondres ere aurkeztu zai-

tezke zuzendaritzaren parte izateko, baina ez da inor animatzen gehienetan. Orain gutxi osatu dugu zuzendaritza talde berria, eta partaideetako bat irailean izena emandakoa da. Beraz, edonori tokatu lekioko.

Zeintzuk dira zuzendaritza taldearen lanak?

"ADIN-TARTE JAKIN BATEAN HUTSUNEA NABARI GENUEN, BATEZ ERE 0-4 URTE BITARTEKO UMEEN KASUAN"

Eguneroko martxa kudeatzeaz gain, urteko ekitaldiak antolatzeaz arduratzen gara. Udalak kulturari bideratutako dirulaguntzetara aurkeztzen gara, eta horrekin funtzionatzen dugu. Ludotekako materiala hartzen dugu kontuan. Berritu beharreko eskulane-tarako materiala, eta epe-luzeko materialari ere errepa-

"BIHURRI LUDOTEKAKO GURASOEN UMEEN EGOTEKO ESPAZIO BAT DUTE ESKURA"

ratu behar izaten zaio noiz-behinka. Betiere saiatzen gara materiala irizpide batzuen arabera aukeratzen: euskarazko materiala, inklusiboa... mezu zuzen eta argia duten materiala, eta didaktikoa bi-lutzen dugu.

Bazkideak denez, kuota bat ordaindu beharra dago.

Urteko kuota ordaindu behar da. 10 euro izaten dira urteko, eta matrikula egiteagatik 30 euro ordaindu behar izaten dira. Azpimarratu beharra dago kuota ez dela umeko ordaintzen, baizik eta familiako. Familia batean hiru ume badaude, kuota behin bakarrik ordaindu behar da, eta ez hiru aldiz. Giltzen kopia egin behar izaten dugu, eta horregatik ordaindu behar da matrikula. Eskubide batzuk dauzkagu lokala erabili ahal izateko, eta betebeharrak ere baditu, horien artean, zuzendaritza aldaketan parte hartu beharra eta garbiketa lanak egin beharra. Bazkide kopuruaren arabera izaten da garbiketaren kontua. Lokala bazkideon artean garbitzen dugu, eta komuna udaletxeko langileen esku egoten da. Astero familia batek garbitzen du, eta beraz, bazkide kopuruaren arabera, urtean behin garbitzea tokatzen zaigu, edo hori ere ez. Urteak 52 aste dauzka eta 56 bazkide gara orain, beraz, urtean behin garbitu behar dugu gutxi gorabehera. Hemen ere, bazkideak gurasoak direnez, bazkide kopurua eta haur kopurua ez datoz bat; haur bat baino gehiagoko familiak ere badaudelako.

Berrikuntzarik izango da datozen hilabeteetan?

Santixabeletan Umeen Egunaz gain, zerbait gehiago ere antolatuko dugu jaietan. Adin-tarte batean hutsunea nabari genuen, batez ere, 0-4 urte bitarteko umeen kasuan. Buruhandiez gain, ez dago eskaintzarik haur txikientzat. Ideia horrekin bueltaka ibili

gara, eta aukerak badaudela ikusi dugu; falta dena eragile bat da hori bideratzeko. Beraz, proposamena egingo dugu Umeen Egunaz gain, adin-tarte horretako haurrentzat zer-bait antolatzeko. Laguntza eskatuko diegu ekintza horiek antolatzeko beste eragile batzuei. Honi buruz asko pentsatu dugu, eta konturatu gara adin-tartea asko handitzen denetan, haur handiagoek berenganatzen dutela espazioa. Beraz, murriztu egingo dugu pixka bat adin-tarte hori, eskaintza ere mugatuagoa izan dadin hutsune hori bete ahal izateko.

Zein da eskaintza?

Ludotekan denetik daukagu, eta eskaintza zabala da. Espazioa ez da oso handia, baina gauza dezente dauzkagu: mahai-jokoak, eskulanetarako materiala, psikomotritzitatea lantzeko materiala, irakurtzeko materiala, mozorroak, buruhandiak... pedagogikoki ere HHn horrela funtzionatzen dute. Aldartearen arabera, mugimendu gehiagoko jolasetarako joera hartzen dute, eta jarduera lasaia goak egiten dituzte.

"Lehen sorospenak haurtzaroan" antolatu duzue berriki.

Orain gutxi konturatu gara herritarrek ez gaituztela eragile modura ikusten. Ludoteka espazioa jende dezente ezagutzen duela uste dugu, nahiz eta eragile ikuspeirik egon ez. Orain pixka bat zabaldu nahi dugu gure proiektua, jendeak ere jakin dezan non gauden eta zertan gabil-tzan. Autogestioak ardura dakar berarekin, baina baita ikaragarrizko askatasuna ere. Txoko hau ez da umea uzteko



Bihurri ludoteka barnean jolaserako aukera ugari dago, psikomotritzitatea eta bestelako gaitasunak lantzeko.

lekua, baizik eta gurasook ere eurekin egoteko tartea eskaintzen digu mugikorrik eta distrakzioerik gabe. Espazio goxo eta atsegina da, eta umearekin konplizitatea lortzeko ederra. Jolasgune aterpedun baten falta nabari dute guraso askok, baina ludotekak nolabait bete lezake hutsune hori. Funtzio hori bete dezake maila batean, bestelako beharrei garrantzirik kendu gabe betiere. Ume bat baino gehiagoko familientzat elkargune moduko bat da. Gainera, yoga ikastaro bat antolatzeko asmotan dabilta iraileko hiru asteburutan eta urriko beste batean; ordube-

**"AUTOGESTIOAK
ARDURA DAKAR
BERAREKIN,
BAINA BAITA
IKARAGARRIZKO
ASKATASUNA ERE"**

teko saioak egingo ditugu. Gurasoek interesa erakusten badute, saiatuko gara bideratzen ikasturtean zehar jarraitzeko. Zibersegurtasuna lantzeko asmoa ere badaukagu, nahiz eta oraindik ez dugun erabat zehaztu. Zinema saioa ere aztertu nahi dugu haurrik txikienezat.

Noiz du erabilera zabalagoa, goizez edo arratsaldez?

Ez dakigu, profila ezberdina da. Goizez 0-2 urte ingurukoak joaten dira gehien. Oraindik eskolatu gabeko haurrek erabiltzen dute goizez, batez ere. Entretentzeko aukera ederra

**"BAZKIDE EGITEN
DIREN GURASOEI
DATUAK HARTU
ETA LUDOTEKAKO
GILTZA EMATEN
DIEGU"**

da ludoteka guraso edo aitona-amonekin. Hala ere, ludotekara etortzen diren ume gehienak 4-8 urte artekoak dira. Horrek zer pentsatua ematen du ludotekaren iruditeria horretan. Lehenago aipatu dugun bezala, bada beste hutsune bat edo adin-tarte bat eskaintzarik ez duena, eta horiek 8-12 urte bitarteko haurrak dira. Ludoteka 8 urterekin amaitzen da, eta Gaztelekura ezin dira joan 12 urte izan arte. Eragileok buelta bat eman behar diogu arazo horri.

Haurrak ludotekara eraman nahi dituztenek zer egin behar dute?

Gurekin harremanetan jarri behar dute. Datuak jaso, kuota ordaindu eta giltza ematen diegu. Egunero egoten da irekita ludoteka, urteko 365 egunetan. Agian, datorren ikasturte hasierarako ate irekiak antolatuko ditugu lekua eta eskaintza ikusi nahi dituztenezat. Beraz, ez dago aitzakiarik, animatu!

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

TXAPELDUN
ARDANGELA
EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurr 2, 943 49 88 83

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Idazlanak aurkezteko epea apirilaren 11n amaituko da.

Etumeta literatura lehiaketan izena emateko epea zabalik da

Hirugarren edizioa izango da aurtengoa. Aurrekoetan bezala, honakoan ere adinez nagusi den edonork har dezake parte. Euskaraz idatzitako lanak bakarrik onartuko dira baina tokian tokiko hizkera ere erabili ahal izango da.

Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegiak antolatutako 3. Etumeta Literatura Lehiaketan parte hartzeko aukera duzue. Apirilaren 11ra arte aurkeztu ahalko dituzue txapelketa honetara zuen sorkuntza lanak. Besteak beste, 18 urte beteak izan beharko dira ekimen honetan parte hartzeko, Usurbilen egon beharko da erroldatua, edota bestela, Etumeta AEK euskaltegian bertan matrikulatua. Segidan duzue, Etumeta AEK euskaltegitik helarazitako txapelketa oinarrien berri:

Arau orokorrak:

- Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarriarik onartuko. Bal-

dintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne.

- Lehiaketan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 18 urte beteak izatea lana bidaltzeko unean, eta Usurbilen erroldatua egotea edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatua.

Lanak:

- Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez.
- Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.
- Gai librean idatziko dira.
- Lehiaketara aurkeztutako lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere.

- Euskaraz idatziak behar dute. Tokian tokiko hizkera ere erabili ahal izango da.

Lanen aurkezpena:

Bi dokumentu bidaliko dira usurbil@aekeus helbidera: 1. Dokumentua: Ipuina bera, marka identifikagarriarik gabe, PDF formatuan. Artxiboaren

BALDINTZAK:
18 URTE BETAIAK
IZATEA, USURBIL
ERROLDATUTA
EGOTEA EDOTA
ETUMETA
IKASLEA IZATEA

izena ipuinaren izenburua bera izango da: "IZENBURUA.PDF". 2. Dokumentua: Parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin identifikatuko da: "IZENBURUA.DATUAK.PDF".

- Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifikatu ez ditzen, baita, epaia ebatzi ondoren, hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

Epeak:

- Lanak bidaltzeko: otsailaren 3tik apirilaren 11ra arte, biak barne.
- Sari banaketan egingo da irabazlea publiko, irabazleari emailez jakinaraziko zaio aurretiaz.
- Sari banaketa ekainaren 4an egingo da.

Epaimahaia:

- Epaimahaikideak hiru izango dira, eta Etumeta AEK-ak aukeratuko ditu. Haien erabakia aldaezina izango da.
- Irabazle bakarra egongo da, eta gehienez ere bi aipamen; bakoitzari diru saria eta oroigarria emango zaizkio. Epaimahaiak sariren bat eman gabe utzi dezake, merezitako lanik ez dagoela erabakiko balu.

Sariak:

- Txapeliduna: 150 euroko baliodun saskia, Hurbilagoren eskutik
- Aipamena: 70 euroko baliodun saskia, Hurbilagoren eskutik

Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

Argitaratzea:

Parte hartzaileek onartzen dute euren lanak argitaratu ahal izatea NOAA! aldizkarian eta Etumeta AEKren sare sozialetan.

"Aitaren kutxa", iazko ipuin saritua

3. Etumeta Literatura Lehiaketaren oinarriak jaso ditugu aldameneko orrialdean. Iazkoan, Iñaki Iturriza Domingo nagusitu zen, "Aitaren kutxa" izeneko ipuin laburrarekin. Orri honetan duzue iazko saritutako lana irakurgai.

Ehorzketa laburra izan zen. Apaizak aitaren alde otoitz egin, eta jarraian hilerriko langileek hilkutxa hobian sartu zuten. Harlauza gainean jarri zutenerako, ama eta biok kanpoaldean ginen. Gurekin batera, familiako lagun zahar bat eta aldameneko betiko bizilaguna; beste inor ez, seme bakarra bainaiz eta ahaiderik ez baita geratzen. Euria gogotik ari zuen, eta taxia etorri bitartean, aterkia partekatu nuen amarekin. Ez genuen ezer hitz egin, ez zegoen giro. Hark zigarro bat piztu zuen, eta nik, isiltasunean, ahaleginak egin behar izan nituen kea ez irensteko.

Handik ordu erdira etxean ginen. Ez dakit noiz izan nintzen bertan azkeneko aldiz, baina beti bezala ikusten nuen. Burdinazko esekitokia atondoan, aitaren jaka zintzilik zegoela. Brontzezko erloju matxuratua korridoreko albo batean. Azuleju koipetuak sukalde estuan. Hor daukazu zopa zeozer afaldu nahi baduzu –esan zidan. Ondoezik zegoela-eta, Valium bat hartu, eta ohera joan zen zuzenean.

Ni bezperan etorria nintzen herrira. Egun batzuk lehenago amaren deia jaso nuen: aita oso gaizki zegoela, eta ez zuela asko iraungo. Laneo premiako kontuak bideratu bezain laster, Munich-Bilbo hegaldia hartu nuen, baina ospitalera iritsi nintzenerako, ordu batzuk zeramatzan hilda. Nahiko ondo nuen pentsatuta nolako izango zen unea. Eskutik



Iñaki Iturriza, iazko irabazlea, lehen sarituaren diploma eskuetan duela.

helduko nion, pasadizoren bat gogoratu, hitz goxo batzuk... Azkenean hori guztia ez zen beharrezkorik izan.

Egian esan, aita eta biok ez genuen inoiz izan harreman handirik. Ez dut gogoratzen bizpahiru hitz baino gehiagoko elkarrizketarik... agian hauxe, speed poltsa sukaldoko mahaiari ahaztu nuen: "Ez diot amari ezer esango, baina ez utzi hori hor gehiago".

Urte horietako krisialdi ekonomikoak behartuta, alde aurretik hartu behar izan zuen erretiroa, eta nahiko denbora libre zuen bere bizitza egiteko. Teilatupe be-

rean ginen, baina bakoitzak bereari ekiten zion. Batzuetan Errioxa aldera joaten zen hainbat egunetarako ehiztari kuadrilla batekin. Hala ere, haren falta ez nuen sumatzen. Denak berdin segitzen zuen.

"AITA ETA BOK EZ GENUEN INOIZ IZAN HARREMAN HANDIRIK. EZ DUT GOGORATZEN BIZPAHIRU HITZ BAINO GEHIAGOKO ELKARRIZKETARIK..."

Amarekin beste kontua zen. Ez zen nire bizitzan sartzen, baina banekien gainean zegoela. Zaila zen zeozer egitea hark azkenean jakingo zuelakoaren zalantza izan gabe. Dena den, eskaileretatik behera erori zenez geroztik, migraina kronikoak izan zituen. Hortik aurrera lasaiago ibili nintzen.

Beraiek ere harreman handirik zutenik ezin da esan. Elkarrekin ez nituen askotan ikusi. Erretiratu aurretik, aitak txandaka egiten zuen lan: gauetz zebilenean, egunez lo; eta alderantziz. Asteburuetan ere, bakoitzak bere aldetik. Ama, gehienetan, ohean buruko minez, edo bestela sofan etzanda telebista ikusten. Aita, Atotxa zaharrera, edo lagunekin musean aritzera.

Zopa ez zait inoiz asko gustatu, nahiz eta orain kartofelsuppe bikaina egiten dudana. Beraz, hozkailuan aurkitutako jogurt pare bat hartu eta sofan eseri nintzen. Aitortu behar dut telebista gaineko armairua beti iruditu izan zaidala toki misteriozua, txikia nintzenetik. Han egoten ziren aitak mus txapelketetan irabazitako kopak; eta han, tartean, bere kartoizko kutxa. Han gordetzen zituen bere altxorak: Realeko bazkide txartela, askotariko metxeroak, zilar itxurako giltzarriak...

Sofatik altxatu, eta kutxa hori azken aldiz miatzea erabaki nuen. Betiko gauzen azpian, argazki bat aurkitu nuen, zuri-beltzekoa. Nik hiruzpalau urte izango nituen, eta aitak sorbaldan ninderraman. Gutun bat ere bazegoen, puskaturik, baina zatiak elkarren ondoan jarrita, ondo irakur zitekeen: "Gaur hitz egingo dut berarekin, eta bihar bertan banoa Logroñora zurekin bizitzera. Hark ere nirekin hitz egin nahi omen du, zeozer garrantzitsua duela esateko". Data 1974ko martxoaren 2koa zuen, ni jaio baino sei hilabete lehenago.

Ander Izagirre eta Zuhaitz Gurrutxaga ostiral honetan izango dira Sutegin

Izatez, astearterako, martxoaren 18rako antolatua zuten Ander Izagirre eta Zuhaitz Gurrutxagaren 'Subcampeón' liburuaren inguruko solasaldia baina azken orduan ostiralea atzeratu behar izan dute. Hona hemen, Sutegi udal liburutegiak martxoa amaierara arte finkatuak dituen bi ekitaldiak:

'Subcampeón' liburuaren inguruko solasaldia

- Martxoak 21, ostirala. 18:30-20:00.
- Ander Izagirreren eta Zuhaitz Gurrutxagaren "Subcampeón" liburuaren aurkezpen-solasaldia. Egileak bertan izango dira.
- Oharra: liburua aurretik irakurri nahi dutenek, aleak eskuragarri liburutegian.



'Subcampeón' liburuaz jardungo dute.

Komiki tailerra, Ainara Azpiazu "Axi"-ren eskurik

- Martxoak 28, ostirala. 17:30-19:00.
- Komiki tailerra Ainara Azpiazu "Axi"-ren eskutik. Nori zuzendua: LH4tik gorako haur eta gaztetxoei (DBH barne).
- Izen-ematea: Aurrez, Sutegi udal liburutegian bertan.
- Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Arantzazuko itzulian izena emateko epealdia

Hamarkada luzeetako tradizioa berrituz, aurten apirilaren 17rako antolatua du Usurbildik Arantzazura oinez joateko ibilaldia herritar talde batek. Apirilaren 12a baino lehen eman beharko da izena 662 039 829 telefono zenbakian. 63 kilometro luze dituen bidea osatzeko (2.700 metroko desnibela) prestatzen hasteko deia egina dute antolakuntzatik.

Goizeko 4:45 aldera biltzen dira frontoi atzean, 5:00etarako prestatu eta ibilaldiari ekiteko. Antolakuntzatik aur-



Apirilaren 17an osatuko dute Usurbil eta Arantzazu arteko ibilbidea.

tengoan ere helarazi duten ohar garrantzitsua; parte hartzaileak federatuak izateak duen garrantzia, edozer gertatuta ere deitzaileak ez baitira horren erantzule egingo.

Bost greba egun gehiago hezkuntza publikoan

Bost greba egun gehiago deitu dituzte LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan.

Akordiotik urrun

Aurreko "greba-zikloak Hezkuntza Saila hitzarmen berrietarako proposamenak mahai gainean jartzera behartu du. Hala ere, hitzarmen horiek aldarrikatutako edukietatik urrun daudela ziurtatu dute sindikatuek, bai sukalde eta garbiketako kolektiboarenak, bai irakasleenak ere".

Ondorioz, "kalitatezko hezkuntzaren bidean Hezkuntza Sailak lan baldintzak hobetu, sare publikoa erdigunean jarri, indartu eta inbertsio publikoa handitu dezan eskatzeko" segida izango dute greba egunek unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan, agerraldi bidez LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek egunotan iragarri dutenez.

Greba egunak, datozen astetik aurrera

Martxoaren 25, 26 eta 27an eta apirilaren 1ean eta 2an.

Gazte Egunaren atarian

Astebete barrurako iragarria du Aztarrika Gazte Asanbladak, 2025eko Gazte Eguna.

Apirilak 29, larunbata

- 11:30 Ginkana Askatasuna plazan. Ondoren, hamaiketakoa Askatasuna plazan.
- 17:30 Poteo girotua Peña Alegriarekin Aitzagatik hasita.
- 20:30 Gazte-afaria Askatasuna plazan.
- 00:00 Kontzertua: Ameba, Zilibito Records, Dj La Fulana. Antolatzailea: Aztarrika Gazte Asanblada.



Ameba arituko da gaueko kontzertuan.

204 langabetu otsailean

Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu dituen azken datuen arabera, lanik gabeko 204 herrikide zeuden joan den hilabetearen udalerrir honetan. Haietatik 114 emakumezkoak izan ziren, 90 gizonezkoak, nahiz beste behin, emakumezkoak baino (80 kontratu pasatxo) gizonezko gehiago (111 kontratu pasatxo) kontratatu ziren.

Usurbilen bezala, langabetu kopurua murriztu zen baita eskualdean eta Gipuzkoan; Beterri Buruntzan 2.849tik 2.828ra eta 28.961etik 28.641era Gipuzkoan.

Langabetu kopurua murriztearekin batera gutxitu da baita otsailean erregistraturiko kontratu kopurua ere; 276 izan ziren urtarrilean, 194 otsailean. Ohi bezala, gehienak (147) aldi baterako hitzartu ziren.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

txirriStra
TABERNA
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENEAtaberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



Azoka solidarioa antolatuta duten Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleak.

"DYA-koei dirulaguntza emateko egingo dugu ekintza solidario hau"

Munduko hainbat herrialdeetan dituzten bizi-baldintzen azterlanetik abiatuta DYA lagundu asmo duen elkartasun proiektua garatu dute Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleek. Azoka solidarioa antolatuta dute datorren asterako.

Korrika eta ekimen horren bidez AEK, Nepal dala Gobernu Kanpoko Erakundea duela bi urte... Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleek urtero elkartasun proiektu bat lantzen dute. Aurtengoan DYA izango da ekimen horren onuraduna. Aste hasieran irudiko protagonistek NOAUA!ri berri eman ziotenez, aipatu erakundeari "dirulaguntza bat eman nahi diogu, horren premia duen elkarte bat delako". Horrez gain, hurbil sentitzen dute DYA, "gertu dugun GKE bat da", eta ontzat eman dute ekarpen hau egitea.

Laguntza postua

Laguntza biltzeko, datorren astean, martxoaren 24an hasi

eta hilaren 28ra arte azoka solidarioa antolatuta dute. "Bertan, patata tortila pintxoak, bizkotxoak (glutenarekin edo gabe) eta DYA-ko hainbat produktu egongo dira salgai, DYA-koei dirulaguntza bat emateko egingo dugulako ekintza solidario hau", berri eman dute LH6-koek. Etxean prestatuko dituzte jakiak. Dagoeneko dena prest dute; nortzuk ze egunetan ekarriko dituzten jakiok baita azoka horretan zeintzuk arituko diren salmenta lanetan. Bide batez, DYA-rentzako laguntza biltzeko asmoa dutenez, erakunde horrek dituen produktuak ere eskuratu ahalko dira, segidan zerrendatuak dituzue.

"DIRULAGUNTZA BAT EMAN NAHI DIOGU, HORREN PREMIA DUEN ELKARTE BAT DELAKO"

neko dena prest dute; nortzuk ze egunetan ekarriko dituzten jakiok baita azoka horretan zeintzuk arituko diren salmenta lanetan. Bide batez, DYA-rentzako laguntza biltzeko asmoa dutenez, erakunde horrek dituen produktuak ere eskuratu ahalko dira, segidan zerrendatuak dituzue.

"HIRUHILEKO HONETAN, BIZI-BALDINTZA EZBERDINAK DAUDELA AZTERTU DUGU"

Egunotan ekimen solidarioa prestatzeko lanetan ari dira buru-belarri. Datorren asteko azokaren aurretik, ostiral honetan, martxoaren 21ean, DYA-ko kideak bisitan izango dituzte ikastolan. Haiekin egiten duten lanaz solasean aritzeko aukera izango dutela berri eman digute lerrootako protagonista gazteek. Dagoeneko iragaritzen hasiak dira ate joka duten ekimena, NOAUA! bidez ere jakinarazi nahi dutena. Laguntza biltzea honetan parte hartzeko deia egin dute hedabide honen bidez.

Bizi-baldintzen azterlana

Orain arteko lanketak herrialde askotan dituzten bizi-baldintza gogorrez jabetzeko balio izan die, kanpoko laguntza zein beharrezko duten. Izan ere, "hiruhileko honetan, munduan zehar bizi-baldintza ezberdinak daudela aztertu dugu", diziplinartekoa den egitasmoaren baitan. Azterlan horretatik sortu zen elkartasun azoka hau antolatzea, boluntario askoko erakundea izanik eta etenik gabe laguntzen aritzen direla ikusirik. DYA hautatu dute elkartasun biltzea honen onuradun. "Ikusi dugunez, DYA-koak bat datoz gure proiektuarekin".

Azoka solidarioa

Iraupena: martxoak 24-28.

Ordutegia: 16:15-16:45.

Tokia: Agerialdeko patioa. Eurria egingo balu, patio horren ondoko frontoian.

Azokako eskaintza:

- Patata trotilla pintxoak: 1,50 euro.

- Bizkotxo zatiak: euro bat.

DYA-ko produktuak:

- Katiluak: 8 euro.

- Tapadun katiluak: 15 euro.

- Botilak: 10 euro.












- Telazko poltsak: 6 euro.

- Motxilak 10 litrokoak: 10 e.

- Karteratxoak: 3 euro.

- Arkatzak, boligrafoak: euro bat.

- Txapak: erosten duenarentzat opari izango dira.




TXANTXANGORRIAK DOMINOAN

Bete itzazu hutsuneak domino zati honek zentzua izan dezan.

Handienetik txikienera

Ordena itzazu korapilo hauek neurriaren arabera (handienari 1 zenbakia eman, eta txikienari 12).



HIZKI - MARRAZKI ALFABETOA


SUDOKUAK

Zuhaitz Mardula

	A	R			L
	U				
		M		D	
	D		U		
				R	
D			A	M	

Bete itzazu sudoku hauen hutsuneak MARDULA eta GIZENA hitzak osatzen dituzten hizkiak erabiliz, hurrenez hurren (batek M, A, R, D, U eta L; eta besteak G, I, Z, E, N eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.





Begiratu ongi ezkerreko paisaiari eta beheko leihoari. Bi tokietan ageri diren elementuak aurkitu behar dituzu. Zortzi dira guztira.

HAN eta HEMEN

ZUHUR HITZA




Alboko hizki-marrazki alfabetoari jarraikiz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia, eta esaera zahar bat agertuko zaizu.

						<input type="text"/>
						<input type="text"/>
						<input type="text"/>



Hemezortzi!

Hona hemen Lili eta Mimi. Lili pottoloagoa da eta Lili meheagoa, baina ez dira bien arteko desberdintasun bakarrak. Aurki itzazu aldeak. 18 dira guztira.





GIZON gizenA

(eta bere zakur Loditxo)


G	I		E		A
	N				I
Z	A				
N				Z	E
I	E	G		A	
				E	G

Aizul! Ez utzi ezertxo ere koloretatu gabel

Margotu



**ABUR
BIRA**



**Euskarazko film laburren
XXII. zirkuituaren
EMANALDIA+Solasaldia**

*Alaia Martin PENTSATZEN DUT filmaren
zuzendariarekin*

Martxoak 23 · IGANDEA · 18:00
Sutegi Auditorioa (USURBIL)



**USURBILGO LANBIDE ESKOLAko
ATEAK ZABALIK**



APIRILAK 3



**17:00 - Goi maila eta
espezializazioa**



APIRILAK 5



10:00 - Erdi maila



APIRILAK 8



17:00 - Erdi maila



**11:30 - Goi maila
eta espezializazioa**

EMAN IZENA



tel. 943 36 46 00

WWW.LHUSURBIL.EUS



Jendetza bertaratu zen 'Janela' erakusketaren inaugurazio ekitaldira.

- Hizlariak: Olatz Salvador eta Jokin Pinatxo.
- Moderatzailea: Gari Udabe.
- Zehaztasunak: "2025ean 40 urte beteko ditu Zumarte Musika Eskolak. Hamaika ikastaro, emanaldi eta bizipen. Hauek denak oroitu eta omentzeko ekitaldi ugari izango dira 2025ean. Ekitaldi hauen barruan kokatzen da "Musika Sorkuntzaz berrikeran" hitzaldua".

Janela erakusketa

Martxoaren 30era arte

"Janela: leiho bat Gorka Urbizuren unibertsora begira" argazki erakusketa Sutegiko erakustaretoan.

Ordutegia:

- Ostegun eta ostiraletan: 17:30-20:00.
- Larunbat eta igandeetan: 11:30-14:00 / 17:30-20:00.

Hitzorduak:

- Martxoak 21 (18:30), 28 (18:30): bisita gidatuak. Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman aurrez eskuragarri.

Antolatzaileak:

Zumarte Musika Eskola, Udala.

Laguntzaileak:

Salbatore Parrokia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Soinurbil zikloaren hasiera jendetsua izan da

Zumarte Musika Eskola 40. urteurrena ospatzen ari da eta inoizko ziklorik oparoena iragarri du.

Martxoak 20, osteguna

- 18:30 Zumarteko talde instrumentalaren kontzertua Aginagako Eliza Zaharran.

Martxoak 22, larunbata

- 12:00 Euskal Herriko Trikitilari Elkartearen 50. urteurren

sorrerako ekitaldia Sutegiko auditorioan.

Martxoak 23, igandea

- Trintxerpeko Musika Banda Usurbilen:
- 12:00 Kanean kalejira.
 - 13:00 Kontzertua frontoian.

Martxoak 27, osteguna

- 18:30 Zumarteko ikasleen kontzertua Hondarribiko Kultur Etxeko aretoan, hangoekin egingako trukearen baitan.

Martxoak 30, igandea

- 18:00 Musika Sorkuntzaz berrikeran Sutegin.

TRINTXERPEKO MUSIKA BANDA KALEJIRAN IBILIKO DA IGANDE EGUERDIAN

Udako kanpaldia prestatzen hasi da Ziortza

Udako kanpaldia gero eta gertuago dagoenez, Ziortzak hainbat kontu iragarri ditu.

"Aurre izen-ematea egiteko epea martxoaren 21ean hasiko da eta martxoaren 31n amaituko da", aditzera eman dutenez. "Ohar garrantzitsua: aurrerago egin beharko den izen-emate ofiziala, soilik, galdetegi hau bete dutenek

egin ahal izango dute". Izen-ematea @ziortzage Instagrameko biografian dagoen estekaren bidez egin daiteke, edota aldameneko argazkiko QRa eskaneatuz.

Hiru txanda antolatuko dira aurten:

- DBH3-4: uztailak 8-17.
- DBH2: uztailak 17-24.
- DBH1: uztailak 24-31.



QR kodearen bidez, kanpaldirako aurre izen-ematea egin daiteke.



Eneko Sagardoyk zuzendu du 'Betiko gaua' izeneko film laburra. Elena Irureta da protagonistetako bat.

Laburbirako zortzi film labur, eta Alaia Martinekin solasean aritzeko aukera

NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik, azkenaldian ekoiztako euskarazko zortzi film labur berri ikusi eta haietako baten zuzendariarekin, Alaia Martinekin hitz egiteko aukera izango da igande honetan Sutegin.

Hunkigarriak, dibertigarriak, ikusgarriak... Ohi bezala, euskarazko film laburren uzta berriena dakar aurtengo Laburbirak ere. Martxoaren 6an aurrestreinatuta zuten Donostian eta ordutik, apirilaren 11ra bitarte, Euskal Herri osoko 51 udalerrietan proiektatuko dira ikus-entzunezko lan laburrok, baita Londonen ere.

Tartean, noski, ohi bezala, NOAUA! K.E. kide duen Taupa euskaltzaleen mugimenduak sustaturiko 22. Laburbira Usurbila ere helduko da datorren martxoaren 23an, Sutegiko auditoriora hain zuzen, NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik, arratsaldeko 18:00etan.

Zortzi film labur proiektatuko ditugu, segidan dituzue sorkuntza lan horiei buruzko

xehetasunak. "Besteak beste, Goya sarietarako hautatutako filmak (Ekain Irigorioren "Europa" eta Eneko Sagardoyren "Betiko Gaua"), Alaia Martin, Gipuzkoako Bertsolari finaleko irabazleak Karmele Mitxelena eta Iraitz Mateorekin batera zuzendutako "Pentsatzen dut", Itziar Ituño protagonista duen "Prosopagnosia" edo "Utlandsk" Huezinema jaialdiko lan irabazlea", eskainiko ditugu Sutegin.

Alaia Martinekin solasaldia
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren irabazlea zuzendari lanetan aritu da "Pentsatzen dut" izeneko film laburrean. Bera izango da film proiektzioaren ondoren Sutegiko solasaldian arituko den gonbidatua.

22.Laburbira

"Prosopagnosia"

- Zuzendaria: Ekain Martinez de Lizarduy.
- Sinopsia: "Prosopagnosia jendearen aurpegiak ezagutzea eragozten duen gaixotasuna da. Barne bidai baten errelatoa da filma".

"Plazer bat"

- Zuzendaria: Sonia Estévez.

ALAI MARTIN BERTSOLARIAK 'PENSATZEN DUT' FILM LABURRAREN ZUZENDARITZAN HARTU DU PARTE

- Sinopsia: "Stop motion teknika baliatuz, film hau pertsona bakoitzak dituen egunero ko plazer txikiei egindako omenaldi bat da".

"Betiko gaua"

- Zuzendaria: Eneko Sagardoy.
- Sinopsia: "Mirenek Elena antzemango du alokatutako auto bat gidatzen. Auto horri segika hasiko da gauaren erdian...".

"Europa"

- Zuzendaria: Ekain Irigoi.
- Sinopsia: "Gerratik ihesi etorri da Lubna Parisera. Gurasoengan du pentsamendua, beraiekin elkartzea baitu helburu".

"Pentsatzen dut"

- Zuzendariak: Karmele Mitxelena, Alaia Martin eta Iraitz Mateo.
- Sinopsia: "Amatasuna lan munduarekin uztartu ezinda, blokeatuta dago Bea. Nora lagunarekin erakusketa batera egindako bisitak barrenak inarrosiko dizkio...".

"Hor konpon"

- Zuzendaria: Jone Arriola.
- Sinopsia: "Rita eta Berta lapurrak dira. Bizimodu horrexek ematen die egunero koan aurkitzen ez duten adrenalina. Bertak, baina, bizimoduz aldatzea erabaki du bat-batean...".

"Goodbye Kepler"

- Zuzendariak: Nerea Ayala, Patricia Fañanás, David Modroño, Iraia Yarto.
- Sinopsia: "9 urte espazio sakonean ibili eta gero, Kepler teleskopioa erregai gabe geratu da...".

"Utlandsk"

- Zuzendaria: Alba Lozano.
- Sinopsia: "Esti Oiartzunera itzuli da sei urtez Suedian bizi ondoren. Herria ez dela deus aldatu baieztatu du eta Estiri kostatzeko ari zaio egokitzea...".



Eskaerak egiteko epea martxoaren 26an amaituko da.

"Beste modura" kontsumitzearen onura, Errigoraren eskutik

"Nafarroa hegoalde eta erdialdeko baratzeako produktuak Euskal Herriko plazara" ekarriko ditu beste behin ere.

Kanpainaren aldarriari keinu eginez, ekimen horren bidez "beste modura" kontsumitzeak dakartzan onurez ohartarazi du Errigorak. "Elikadura burujabetza da Euskal Herrian kontsumitzen ditugun elikagaiak hemen ekoiztuak izateaz gain, elikagaien ziklo guztiaren gaineko (ekoizpena, banaketa eta kontsumoa) erabakimena ere herriaren eskuetan egotea. Horretarako, ekoizle nahiz kontsumitzaileen parte-eta kontzientzia-hartzea ezinbestekoak dira. Bide hori sustatuz, denon komunitate osoaren (ekoizle zein kontsumitzaileen) zaintza helburu nagusi bilakatzen da. Horrela, eskematik kanpo uzten ditugu bata zein bestearen miseria elikatzen duten enpresa erraldioen interesak. Bestelako kontsumo bat bultzatzeak, onurak dakartzkigu denontzat".

Onura ugari saltzaileentzat zein erosleentzat

Elikadura burujabetzak ahalbidetzen du denontzat "elikatzen gaituenari buruz infor-

matuta egotea, gardentasuna, eskuhartze gaitasuna, erabakimena, ahalduntzea, harremanak, osasuna, komunitatea, kultura, hizkuntza...".

Errigoraren udaberriko kanpaina

- Eskaintza: ardo bereziak eta gorenak, dilistak, arroza, zainzuriak, orburuak, barazkiak, babarrunak, zainzuriak, piperrak, kardua, tomatea, potxak, menestra, arbendolak, pasta, oliba-olioa.
- Oharra: olio bost litroko bidoietan eskuratu ahalko da, kontserbak hamabi ontziko sortetan.
- Eskaerak egiteko modua: errigora.eus atarian edo NOAUA!-ren egoitzan.
- Eskaerak egiteko epealdia: martxoak 10-26.
- Produktuen banaketa: maiatzak 6-7, 16:30-18:30 artean, Udarregi ikastolako erdiko aretoan.
- Informazio gehiago: errigora.eus



Kanpaldi honek "euskaldun gisa ahalduntzeko" aukera ematen du.

'Salto!', udalerrri euskaldunetako udalekuak

UEMAk udaleku ibiltaritan parte hartzeko epealdia zabaldu du, 2007-10 urte artean jaiotakoentzat.

UEMA-ren udaleku ibiltari eta euskaldunok udalerrri euskaldunetako gazteak elkar eza-gutu eta saretzea, "euskaraz gozatzeko une eta gune dibertigarria, alaia eta gertukoa" eskaintzea eta "euskaldun gisa ahalduntzeko eta kontzientziazteko aukera" ematea sustatzen dute.

"Udalerrri euskaldunak eta arnaguneak giltzarriak dira"

Heritarrak euskararekiko kontzientziatu eta sentsibilizatzen dihardu UEMA-k azken urteotan, besteak beste, "Hedatu hezkuntza proiektua" izenekoarekin. "Udalerrri euskaldunak eta arnaguneak giltzarriak direla nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz gain". Horren baitan antolatzen ari dira gazteentzako udalekuak. "Euskaraz bizi diren gazteek inertziaz kontzientziarako saltoa ematea eta horrekin efektu biderkatzailea sortzea da helburua".

"Salto!" udalekuak

- Nori zuzenduak: 2007-2010 urte artean jaiotako gazteentzat.
 - Txandak: 2.
 - Txanden epealdia: ekainak 22-30, uztailak 2-10.
 - Bi txanden ibilbidea: Ekainak 22-24/uztailak 2-4: Baliarrain. Ekainak 24-26/uztailak 4-6: Zaldibia. Ekainak 26-28/uztailak 6-8: Ataun. Ekainak 28-30/uztailak 8-10: Idiazabal.
 - Izena emateko epealdia: martxoak 31.
 - Izena emateko bideak: uema.eus edo labur.eus/salto2025 izena helbide galdetegia beteta.
 - Prezioa: 175 euro.
 - Plaza kopurua: txanda bakoitzean 60 lagun, guztira 120.
- Informazio gehiago:**
943 816 699
administrazioa@uema.eus
uema.eus



Euskaraldia Usurbilen antolatzen ari den herritarren batzordea.

"Elkar mugituz, egingo dugu!"

Zabalik da jada, maiatzaren 15etik 25era egingo den laugarren Euskaraldian belarriprest nahiz ahobizientzako izena emateko epealdia. Usurbilgo herri batzordea ere prestaketa lanetan da. Hainbat herritarren atxikimenduak bildu dituzte dagoeneko.

Entitateek hilabeteotan izena emateko aukera izan dute eta, orain, norbanakoen txanda heldu da. Ahobiziek eta belarriprestek izena emateko epealdia zabalik dute. "Oso-oso modu errazean" eman dezakete izena, Euskaraldiaren bultzatzaileek egunotan eginitako agerraldi bidez jakinarazi dutenez; izenematea.euskaraldia.eus atarian sartuta hain zuzen. Bertan dagoen formularioa osatu beharko da.

Norbanako parte hartzaile guztiak izena emateak duen garrantziaz ohartarazi dute. Izan ere, "horrek ahalbidetuko du gero, Euskaraldiaren inguruko ikerketa egin ahal izatea, parte hartzaileen jarraipena egitea, txapak banatzea, eta batez ere, prestakuntza tresna eta aholkuak helarazi ahal izatea".

Ahobizi edo belarriprest gisa izena emandakoan, hurrengo urratsa rol horri dagokion txapa eskuratzea izango da. Euskaraldiarekin bat egin dela adieraztearekin batera, zer modutan parte hartuko duen irudikatuko duen soinean eramateko baliabide hau nork bere herrian eskuratu ahaliko du, tokian tokiko herri batzordearen eskutik. Txapa jaso ostean, gero, Euskaraldiak iraungo duen hamaika egu-

"AURREAN DEN EZEZAGUNAK EUSKARAZ BADAKIEN ERAKUTSIKO DU TXAPAK"

netan, maiatzaren 15etik 25era soinean jantzi beharko da, "aurrean den ezezagunak euskaraz badakien erakutsiko baitu txapak. Norberarentzat baino besteentzat keinu bat da txapa, beraz".

Euskaraldiaren sustatzaileek sarritan aipatu ohi duten moduan, "estres linguistikoa" txapak ezabatuko du. "Izan ere, stres linguistikoa da pertsona elebidun batek, ezezagunak aurrean, hizkuntza

URTE OSOAN, ARIKETA KOLEKTIBO HONEK BULTZATURIKO JARREREI EUSTEKO DEIA EGIN DUTE

gutxiagotua hobesteak ekartzen dion tentsioa. Txapa ikusita bai baitakigu aurrean dugunak euskaraz ulertzen duela, behinik behin. Hala, txapak mezu argia ematen dio aurrean duenari: "nirekin egi-zu euskaraz!".

Euskaraldiak iraungo duen hamaika egunetatik haratago, urte osoan, ariketa kolektibo honek bultzaturiko jarrerei eusteko deia egin dute, "izan ere, urte guztian behar ditugu euskaldunak euskaraz".

Ahobizi

Segidan duzue, Ahobizi gisa izena eman nahi duzuenok Euskaraldian izango duzuen parte hartzeko moduaren berri:

- Orain arte euskaraz izan dituzun elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute; baina, orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo elebiz izatea ere lortuko duzu.

- Jarrera aktiboa izango duzu, beraz. Zure harreman sarean dituzun hizkuntza praktikak aztertu eta euskarara aldatzeko aukera duzun horietan eragingo duzu. Hizkuntza aldaketarako aukeratu dituzun harreman horietan ezezik, zure bizitzako esparru guztietan euskaraz arituko zara, ahal den guztietan, ahal duzun guztiekin.

- Bi aldeek euskaraz ulertzen badute, ez dago euskaraz ez egiteko arrazoirik. Ahobizi eta belarriprest ugari izango baitituzu inguruan.

Belarriprest

Rol honetan aritu asmo duzuenok, Euskaraldiak aktiboki parte hartzeko konpromiso hau hartu beharko duzue:

- Orain arte euskaraz izan dituzun elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo elebiz izatea ere lortuko duzu.

→ • Jarrera aktiboa izango duzu, beraz, gonbitea egingo baitiezu euskal hiztunek zurekin euskaraz hitz egin dezaten. Oso garrantzitsua da zure funtzioa, euskarazko elkarrizketak sortzen lagundu eta euskara erabiltzeko giro babestua sortuko duzulako.

-Ariketa egiten duzun bitartean giro babestua izango duzu, ahobizi eta belarriprest ugari izango baitituzu inguruan.

"Lehen hitza euskaraz"

Ahobizi eta belarriprest gutzintzako izena emateko epealdia zabaldu den honetan, Euskaraldiarekin bat egingo dutenen artean dira orrialde honetako argazkiko hiru herrikideak; Alizia, Modu eta Antton. Usurbilen ariketa kolektibohonen laugarren edizioa prestatzen ari den herritarren batzordearen eskutik, asteotan ekimen honekin konprometitu den hamaikakoa aurkeztuko digute. Talde horretako lehen hiru herrikideen lekukotzak dituzue segidan. Euskaraldian parte hartzearen garrantziaz edota ekimenak haiengan izandako eraginaz dihardute lerrootan.

Hasteko, aurkezpen gutxi behar duen Modu da Euskaraldiari atxikimendua adierazi eta parte hartzeko asmo argia agertu duena. Urteak daramatza Usurbilen bizitzen. Euskara ahotan hartzeko ariketa kolektibo honetan parte hartzeko garrantzia nabarmendu du, horretarako, "hitz egiteko batez ere, jendearekin euskaraz harremanu ahal izateko". Izan ere, bere esanetan, "oso garrantzitsua da, bizi zaren herrian bertan hitz egiten duten hizkuntza komunikatzea". Zalantzarik ez du, erdaraz baino, "euskaraz



Antton, Alizia eta Modu, datorren Euskaraldiarekin bat egingo duten herrikideen artean dira.

hitz egin nahi nuke". Horregatik du, "lehen hitza euskaraz" egiteko erronka.

"Indarra ematen didate"

Ildo beretik mintzatu da, Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herri batzordeak grabaturiko elkarrizketa sortan, Alizia ere. Santuenean bizi da. Maiatzeko bigarren hamabostaldian egingo den laugarren Euskaraldian belarriprest gisa parte hartuko du. Belarrira euskara heldu behar zaie rol honetan parte hartzen dutenei, hizkuntza horretan mintzatu behar gara ahobizien kasuan

"OSO GARRANTZITSUA DA, BERTAN HITZ EGITEN DUTEN HIZKUNTZAN KOMUNIKATZEA"

MODU

bezalaxe, hala egiteak arrastoa uzten du eta, Aliziak gogorazazi digunez.

Aurreko edizioen amaieran, uste baino gehiago ulertu eta hitz egin ahal izan zuela euskaraz, dio Santueneko bizilagunak. Horrek ere bera bultzatu du, Euskaraldiak iraundako hamaika egunetatik kanpo, epealdi hori igaro ostean ere, "gerora, euskaraz gehiagotan aritzera". Solturaz hitz egiterik izan ez arren, Euskaraldiari esker, "konturatuko dira ni bezala, gutxirekin zenbat egin daitekeen". Dagoeneko euskaraz aritzeko

"EUSKARAZ HITZ EGITEN LAGUNTZEN DIDATE ETA EZ ZAIT KOSTATZEN. INDARRA EMATEN DIDATE"

ALIZIA

ohitura du hainbat pertsonekin. "Haiek euskaraz hitz egiten laguntzen didate eta ez zait kostatzen. Indarra ematen didate", ahalegin horretan jarraitzeko.

"Elkar mugituz, egingo dugu!"

Antton da, Euskaraldiarekin bat egin duen beste herrikideetako bat. Herri batzordeak grabatu dion elkarrizketan, dioen moduan, 28 urte darma Usurbilen bizitzen familiarekin. "Euskaraz ikasten ari naiz berriro", adierazi du. Egun, jubilatua da eta bere belaualdikoekin batera, "euskara ikasten ari gara".

Bi hilabete barru egingo den laugarren Euskaraldian belarriprest izango da Antton, erronka argi batekin; "niretzat euskara da elkarrizketan aritzea eta hori bultzatu nahi nuke, euskaraz hitz egitea". Horretara gonbidatu gaitu guztiok, haien bidelagun izatera; "elkar mugituz, egingo dugu!".

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiarenean 6, Usurbil.



Ibai Arrieta, argazki bakoitzaren atzean dagoen historia kontatzen.

"Janela" argazki erakusketan barna sartzeko bisita gidatua egin zuten

"Janela" argazki erakusketa sortzeko prozesua eta, horrekin batera, Gorka Urbizuk "Hasiera bat" lana grabatzeko prozesua ulertzeko Ibai Arrieta del Pico argazkilaria usurbil-

darrak bisita gidatua eskaini zuen Sutegiko erakusketa aretoan larunbat goizean. Bi prozesuak batera ulertu beharra dago erakusketa eta diskoa ulertzeko.



Suhar abesbatza, aldare aurrean kantari.

Suhar abesbatza maisuki aritu zen kantuan Salbatore elizan

Suhar abesbatzaren bisita jaso zuten igande arratsaldean Salbatore Elizan bertaratu zirenek.

Euskal Herriko ia 40 abeslariz osaturiko taldea da Suhar Korua, gizon-abesbatzenta-

ko errepertorioa maila gorenean lantzeko eta zabaltzeko asmoa duena. Euskal Herrian hainbat sari irabaziak dira eta atzerrian ere kontzertuak emandakoak.

TXANTXANGORRIAK DOMINOAN
Bete itzazu hutsuneak domino zati honek zentzua izan dezan.

HANDIENETIK TXIKIENERA
Ordenez itzazu korapilo hauek neurriaren arabera (handienari 1 zenbakia eman, eta txikienari 12).

SUDOKUAK

Zuhartz MARDULA

M	A	R	D	U	L
L	U	D	M	A	R
U	L	M	R	D	A
R	D	A	U	L	M
A	M	U	L	R	D
D	R	L	A	M	U

Bete itzazu sudoku hauen hutsuneak MARDUL eta GIZENA hitzak osatzen dituzten hizkiak erabiliz, hurrenez hurren (batek M, A, R, D, U eta L; eta besteak G, I, Z, E, N eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela letra, zutabe eta area bakoitzeko.

Alboko hizki-marrazki alfabetoari jarraikiz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia, eta esatera zahar bat agertuko zaizu.

ZUHUR HITZA

B A L E K I T
G A Z T E A K
B A L E Z A
Z A H A R R A K

HAN eta HEMEN

Hemezortzi!

Hona hemen Lili eta Mimi. Lili pottologoa da eta Lili meheagoa, baina ez dira bien arteko desberdintasun bakarrak. Aurki itzazu aldeak. 18 dira guztira.

Gizon gizena
(eta bere zakur Loditxo)

G	I	Z	E	N	A
E	N	A	Z	G	I
Z	A	E	G	I	N
N	G	I	A	Z	E
I	E	G	N	A	Z
A	Z	N	I	E	G

Aizul Ez iriz ezertxo ere koloretatu gabel

Margotu

'Plazan Bazan' 12-13 orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldari bila gabilta. Orduetgia astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketara lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

BESTELAKOAK

55 kilo inguruko aharia salgai Mahaspildegina. 943 364 461 (12:00-15:00 artean deitu).

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 22, larunbata:

- 10:00 Infantil neskak: Usurbil KE-Mail Boxes Zarautz
- 11:30 Kadete neskak: -Cortes Usurbil KE -Larraioz ZKE
- 17:30 Jubenil neskak: Usurbil KE-Landu OET
- 19:30 Senior mutilak: -Saizar Usurbil KE -Alcorta Forging Group Elgoibar

Martxoak 23, igandea

- 11:45 Jubenil mutilak: -Usurbil KE-Aloña Mendi K.E.

Futbol Eskola

Martxoak 23, igandea:

- Alebinak 1. urtea (2014), Cesar Beniton: Lengokoak-Usurbil FT
- Alebinak 2. urtea (2013), Andoain: Euskalduna SD B-Usurbil FT
- Benjaminak 2. urtea (2015), Astigarragan: Mundarro-Usurbil FT
- Benjaminak 1. urtea (2016), Orion: Orioko FT-Usurbil FT

Boleibola Oiardon

Martxoak 22, larunbata:

- 13:00 Kadete neskak: Usurbil-Goierri B1

Futbola Haranen

Martxoak 22, larunbata:

- 09:00 Infantil txiki: Usurbil FT-Ostadar SKT
- 10:30 Infantil mutilak: Usurbil FT-Mutriku FT B
- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil FT-Elgoibar CD B
- 16:00 Preferente neskak: Usurbil FT-Antigua Luberrri KE
- 18:15 Ohorezko jubenilak: Usurbil FT-Gure Txokoa KKE

Martxoak 23, igandea:

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil FT B-Urnieta KE

- 11:30 Infantil neskak: Usurbil FT B-Real Union BE

Haranetik kanpo:

Martxoak 22, larunbata:

- 18:30 Erregionalak, Astigarragan: Mundarro FKE B-Usurbil FT B

Martxoak 23, igandea:

- 14:00 Infantil neskak, Añorgan: Añorga KKE-Usurbil FT
- 15:30 Jubenilak, San Jose Obreron: Dunboa Eguzki-Usurbil FT B
- 17:00 Preferente mutilak, Orion: Getariako Keta-Usurbil FT

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 21

USURBIL Helduentzako tertulia filosofikoa

Izen-ematea doan, usurbilkultura.eus web orrialdean.

18:30-20:00 Potxoenean.

USURBIL Soinurbil: bisita gidatua "Janela" erakusketan

Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

18:30 Sutegin.

LARUNBATA 22

USURBIL Arroitxuloren bilera

10:30-13:30 Txirikordan.

USURBIL Pentsiodunen sinadura bilketa

11:30-14:00 Sutegin.

USURBIL Euskal Herriko Trikitilari Elkartearen 50. urteurren sorrera ekitaldia

12:00 Sutegin.

IGANDEA 23

USURBIL Soinurbil: Trintxerpeko musika banda

Euskal Herri osoko ia 40 abeslariz osaturiko taldea da Suhar Korua. 12:00 Klean. 13:00 Frontoian.

USURBIL 22. Laburbira

8 film labur ikusgai. Sarrera doan. 18:00 Sutegin.



'50 urte eta gehiago' liburuaz jardungo dute martxoaren 22an, Sutegin.

Trikitixa elkartearen iraganaz eta orainaz

1972an Usurbilen egindako Trikitixa egun batek erein zuen hazia Euskal Herriko Trikitixa Elkarte sortzeko. Egundorretatik hasita 50 urte luze lanean dihardu elkarteak eta urteurren borobilean, historia guztia biltzen duen liburua idatzi dute Laxaro Azkunek eta Haritz Garmendiak.

Liburuaren xehetasunak eta bertako pasarteak kontatzera

datoz bi idazleak martxoaren 22an Sutegin egingo den aurkezpena.

Martxoak 22 larunbata

- 12:00etan, Sutegin.
- 13:00ean trikipoteoa.
- 14:00 Bazkaria Artzabalen.
- Antolatzaileak: Zumarte Muskisa Eskola eta Udala.
- Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Igande honetan, 'Laburbira' Sutegin

Zortzi film labur eskainiko dira: Prosopagnosia (Ekain Martínez de Lizarduy), Plazer bat (Sonia Estevez), Betikoa (Eneko Sagardoy), Europa (Ekain Irigoien), Pentsatzen dut (Alaia Martín, Karmele Mitxelena, Iraitz Mateo), Hor konpon (Jone Arriola), Goodbay Kepler (Nerea Ayala) eta Utlandsk (Alba Lozano). Igande honetan, 18:00etan Sutegin.

Bisita gidatuak 'Janela' erakusketan

'Janela: leiho bat Gorka Urbizuren unibertsoa begira' argazki erakusketa zabalik da Sutegin. Bisita gidatu bana iragarri dute martxoaren 21erako eta 28rako. 18:30ean hasiko dira bisitak. Gonbidapenak usurbilkultura.eus web orrian eskuragarri.

Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuaren eskubideen alde Sarek deitutako elkarretaratzea hilaren 28an egingo da, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Kantu-jira

Martxoan ere kantu-jira igandearrekin egingo du Usurbilgo Euskal Kantu Taldea. Hilaren 30ean eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka eramateaz.

Artzi
 Patrimonia
 lateketa
 • bazkariak EGUNERO
 • afariak ostirala eta larunbata
 © 943 362725 • © 688 690 361

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

URDAINTZI S.L.
 Eraikuntzak
 urdaintzi@euskalnet.net
 IT-ak egiten dira
 649 43 54 75
 943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ORIANTE BHI

BATXILERGOKo matrikulazio epea
MARTXOAK 31 - APIRILAK 11

- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetza
- Agenda 2030
- Orientazio akademikoa
- Ekintza osagarriak
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- Hezkuntzako eramangarriak doan

ATE IREKIAK

APIRILAK 2, 17:30-18:30

LARREKOETXE eraikinean!

ZIENTZIAK ETA
TEKNOLOGIA

GIZA ETA
GIZARTE
ZIENTZIAK



Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa) ☎
Buenos Aires aldapa 1, Lasarte-Oria
943 899 492 ☎
info@oriarte.eus ☎
<https://oriarte.hezkuntza.net/> 🌐

USURBILGO HAUR ESKOLA 2025/26 MATRIKULAZIOA

0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2023, 2024 eta 2025eko azaroa bitarte
jaiotako hurrei zuzenduta

ATE IREKIAK: martxoaren 25ean 17:30ean.

Izena emateko bete ondoko galdetegia:



MATRIKULA-EPEA: martxoaren 31tik apirilaren 11ra (biak barne)

HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA: 8:00-16:00.

EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila-uztaila.

Matrikulaziorako hitzordua: 943 374061 telefonoan 8:30etik
12:00etara eta haureskola@udarregi.eus

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL // Informazio gehiago: haureskola@udarregi.eus edo 943 374061



BESTE MODURA



Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan



DENONIA DA ONURA

Martxoak 10-26
errigora.eus

